- Jarraian arauaren artikuluen multzoari helduta, oso positibotzat jotzen du arauan, esate baterako, eskubidearen subjektuak udalerrian bizi diren pertsonak izatea, beste arau batzuen aldean ere positiboa da. Baina gero, arauaren garapenean erroldatze agiria aurkezteko betebeharrak irabazitako guztia beste alde horretatik galtzea dakar. Izan ere, parte hartzea asko mugatzen du. Esate baterako, herri kontsulta loteslea balitz, erroldatzea beharrezkoa

litzateke. Formak dibertsifikatuko lituzke. Txikikeria bat dirudi, baina berak badaki, funtzionarioa den aldetik, asko murrizten duela horrek. Herri kontsultetan bizilekua egiaztatzea, baina proposamenetan, eztabaidetan, ideien ekarpena egiterakoan, ez luke eskatuko bizilekua egiaztatu beharra.

- Eskubideen subjektuei dagokionez, esaterako, juridikoki eratuta ez dauden kolektiboak ere sartuko lituzke. Eskubideen subjektuak pertsonak izan behar dira, juridikoki eratuak eta kolektiboki eraikitze biltzen diren herritarrek. Era berean, ez du uste subjektu batzuek besteen aldean inolako pribilegiarik izan behar dutenik. Prozesu jakin batean herritarren babesa eskatu ahal bada, eskubideen subjektu ororentzat izan behar da, ez soilik juridikoki eratutako horientzat.

- 3. artikuluan, helburuak hizpide dituen horretan, deigarria egiten zaio elkarte ehuna sustatzea bada helburua, jendea biltzea eta bilera horietan eztabaidatutakoa jendartera hedatzea, positibotzat jotzen duela, baina alderantziz, helburua bada jendeak parte hartu ahal izateko eragile juridiko gisa eratu behar dela, ez deritzo helburu positiboa. Interesgarria gizarte sareak egotea da, baina juridikoki eratuta egoteak ez dauka zentzurik gure esperientzia demokratikoarekin, izan ere, lehen eskubide batzuk bermatzeko zen, eta orain ez da beharrezkoa.

- Erakundeen erregistroari dagokionez, beraren iritziz ez da beharrezkoa, arauak adierazten du parte hartzeko erregistro hori egon behar dela. Arlo publikoaren kudeatzaile den aldetik, berak ez du beharrezkotzat jotzen, eta partaidetzaren arloko aditu den aldetik, kontrol mekanismo bat dela uste du. Partaidetza prozesua arrazoirik gabe burokratizatzen duen orok azkenean bultzada kentzen dio partaidetzari berari.

- Herritarren partaidetzarako tresna desberdinetan sakonduz, tarte bat zabalduko du Bartzelonako unibertsitatearen txostenari buruz, hor egindako hausnarketarekin ados baitago oso hein handian. Bera bat dator partaidetza prozesu guztiak herritarren deliberazio prozesuekin lagunduta egon behar direla esatean. Eztabaida egotea bultzatzen badugu, askoz ere aberasgarriagoa izango da. Gainera, izena aldatuko luke Bartzelonako unibertsitateko txostenak seinalatzen duen bezala: eztabaida publikorako prozesua.

- Beste alde bat da arauaren independentzia falta borondate politikoaren aurrean, bai deliberazioak eta bai kontsultak eragin edo garrantzi handia izan behar dute lurraldean, zehaztugabea eta arbitrarioa da “nola eta nork erabaki”. Unean uneko gobernuaren eskuetan uzten du. Nola konpondu hori? Prozesuak zein gaitan abiaraz daitezkeen zehaztuz. Intereseko badenari eta ez denari buruzko arbitrariotasun hori ahalik eta gehien murriztuz.

-Oso deigarria egin zitzaion beste gauza bat da partaidetza prozesuak gehienez ere parte hartuko duen pertsona kopuruaren aldetik arautu beharri dagokiona da. Ez du oso ondo ulertzen, gutxienekoa balitz izan liteke, baina inondik ere gehienekoa. Gehitzea dakarren oro aberasgarria da.

- Norbanakoek parte hartu ahal dute interesa dutela egiaztatuz, eta hori ere arrarotzat eta ez beharrezkotzat jotzen du, izan ere, iritziz bat adierazten duzunean eta interesa agertzen duzunean, horrekin nahikoa da. Egoera burokratizatzearen logika horretan sartzen da eta horren ondorioa da partaidetzari bultzada kentzea.

- Oso positibotzat jotzen du prozesu bat abiatzen denean zeinahi erabaki eten egingo dela ezartzen duen neurria. Konpromiso bat da.

- Eta orokorrean jada, bai deliberazio prozesuetan eta bai kontsultetan, izaera lotesleari buruzko iritzia eman du. Bi eztabaida daude, politikoa eta juridikoa. Juridikoa oso murriztailea da beraren iritziz, zehazki, Auzitegi Konstituzionalaren sententzia, Konstituzio espainolaren 23. artikulua. Berez, auzitegi horren osaerarekin dauka zerikusia, eta horrek azaltzen du erabakiaren izaera murriztailea. Baina nolanahi ere tope hori dago; sortzaileak izan eta beste mekanismo batzuk zabaltzeko aukera dago. Ezerk ez du eragozten, zehatzera jota, bermeak eman ahal izatea prozesuaren hasieran loteslea izateko edo ez izateko. Baldintza agiri bat ezar liteke eta aurretiazko konpromiso bat egotea. Zure konpromiso politikoa adieraztea arauan jasota, prozesu bat abiarazten duzunean adierazi ahal izatea zure konpromiso politikoa loteslea izango den ala ez, eta arrazoiak, zehaztuz.

- Artikuluen atalari dagokionez horiexek dira nabarmentzekoenak, eta uste du, halaber, partaidetzarako erremintak falta direla. Gure gizartea gero eta askotarikoagoa da eta erremintak ere halaxe izan beharko liratekeela uste du.

Partaidetzarako erremintak falta dira, gehienbat erreminta digitalei dagokienez. Halako erremintek aukera sorta zabala eskaintzen digute, baina ahalegina egin behar da erremintak inklusiboak izan daitezen.

- Domínguez andreak aipamen berezia egin nahi dio generoaren gaiari arauan, araua oso generikoa da, generoaren ikusmoldea nominala da arauan, izendatzeko modua. Generoaren balorazio zehatza falta da, “gizonek baino emakume gehiagok edo gutxiagok parte hartzen duten” analisi kuantitatibotik haragokoa. Gaur egun ere gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna dagoen gizarte batean bizi gara, gaur egun modu sakonagoan heldu behar zaio horri. Izan ere, instituzioek kokatzen edo ulertzen gaituzte kolektibo gisa, baina errealitatea zera da, biztanleriaren %50 gara. Genero gaietan neurri handiagoan lur hartu.

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean halako desberdintasuna egotea eragiten duten mekanismoak identifikatu. Eta gai publikoak eta efektuen inpaktua genero ikuspuntutik ulertzen dituztenen ikuspegia bera jendartera hedatzea.

- Azkenik, mekanismo instituzionalak, nola kateatzen den arau bat, bultzatzen ote duen arau bizi bat izatea jendearen zerbitzura edo tiradera batean geratzea. Arauaren lau gauza on nabarmenduko lituzke: partaidetzarako foru zuzendaritza bat, arauak ebaluazioa finkatzea, hirugarrenik positibotzat jotzen du tokian tokiko partaidetza sustatzea, udalerrietan, baina diru laguntzen aldeko apustua egin beharrean, hitzarmenaren alde egingo luke, hitzarmen proaktiboagoak.

Hitzarmen horietan sartu akonpainamendu kolektiboa, eta hala elikatu partaidetza kontseiluak esperientziarekin, ebaluazioarekin eta prozesu horien jarraipenarekin.

Talde politikoen galderei erantzunez, Martak zintzotasunez uste du ezin izango diela galdera guztiei erantzuna eman, sakontasun handikoak direlako. Demokrazia parte-hartzailearen eta ordezkaritzakoaren arteko eztabaidari buruz, ez du uste ordezkaritzako demokrazia bahitzea gertatzen denik ezta ezabatzen denik ere. Ez du hori esan, ezta esan nahi izan ere, baizik eta bakoitzak bere misioa betetzen duela, hau da, zein ildotarantz doan gobernuen ekintza politikoa. Berak uste du hori dela esentzia, nondik edaten du ordezkaritzako demokraziak? Herriarregandik, kolektibitatetik. Aberasteaz hitz egin beharrean osagarritasunaz hitz egitearen arazoa horixe da, ez dela osagarri, ordezkagarriaren mende jartzen baizik, demokrazia parte-hartzailea efikaz eta efizientea izan behar da, eta erabilgarritasun hori osagarritasunarekin alderatzen du. Eta badirudi bata bestea baino zilegitasun handiagoa duela. Herriarrek kontaktua bat izatea, hauteskundeetatik harago.

-Lotesletasunari buruz, ez da argi ulertu, berari ere kezka sortzen diote presio taldeek eta horregatik nabarmentzen du prozesuen balio inklusiboa. Berezi azpimarratzea gardentasuna eta konpromisoa. Esatea eta azaltzea.

-Zer-nolako kontsultetan izango da loteslea eta zeinetan ez? Bueno, bada berak uste du emaitza kolektibo oro hobea izango dela banakako baten aldean. Efizienteagoa eta efikazagoa da erabaki kolektibo bat izatea. Batez ere gardentasun azpimarratu du.

- Parte hartzeko bizilekua egiaztatzea, berak eskakizun gisa jarriko luke soil-soilik prozesua loteslea balitz, parte hartzea nahi duen ororentzat izan beharko litzateke.

- Mekanismo instituzionalei buruz esan nahi zuena da mekanismoak ezarri beharko liratekeela arauaren bizipena sustatzeko, tiradera burokratikatik ateratzeko. Partaidetza beti atzean geratzen da, protagonismoa ematea doikuntza instituzionalarekin.

- Ez du uste demokrazia parte-hartzailearekin kolapsorik gertatuko denik, kudeatzen bada zentzu gehiago izango du, ez du halako arriskurik ikusten, eztabaidaren esparruan berak kokatu duen gisa horretan.

- Arauak borondate politikoaren aldean independentzia izatea zehazteko mekanismoak egiteko orduan, zenbait izendatu ditu, hala nola desburokratizatzea, prozesua abiatzeko moduak, eta partaidetzarako sarbidea sinplifikatzea. Administrazioak berak oztopatu egiten du partaidetza, eta prozesu horiek herritarrek beraiek ere abiarazi ahal izatea.
- Erabat ados dago demokrazia zuzenarekin, baina kontu handia izan behar da banakako demokraziarekin, eta beti eratu ditzagun gune kolektiboak.
- Auzitegi Konstituzionalaren sententziari dagokionez, dioena da demokrazia parte-hartzailea partaidetza politikoak baldintzatzen duela, eta bozkatzeko eskubidea dela *per se* bakarra, eta horixe dela Konstituzio espainolak jasotzen duen oinarritzko eskubidea, eta horrexegatik uste du murriztailea dela, eta gai publikoen gainean erabakitzeke eskubidea izan beharko genuela, eta “erabakitzeke” eskubide hori kolektiboa izan dadila bermatzeko lan egin behar dela.

• 2016ko apirilaren 5ean agerraldia egin zuten **Juan Romerok**, herritarren partaidetzan aditu eta Open Kratio kolektiboaren sortzaileak, eta Juango Alvárezek, EHUKo katedradun Nazioarteko Zuzenbidean eta Gobernanza taldeko kideak. Gaurko saioan gure artean izan dugu Joseba Muxika, Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako zuzendaria.

Juan Romerok jakinarazi digu arauaren ebaluazioa barik, proposamen bat ekarri duela.

Beraren iritziz, testuak berak ez du akatsik, baina bi gabezia dituela uste du: alde batetik, tresnen urritasuna dago (ia-ia kontsulta baino ez dago); eta bestetik, generikoa eta abstraktua da, bera garatzeko araudi bat behar du.

Testura itzulita, bereziki deigarria egiten zaio hitzaurrearen lehenbiziko paragrafoa, bertan demokrazia parte-hartzailea ordezkartzeko demokraziaren osagarri gisa irudikatzen delako. Aurreneko auzi nolabait esan historikoa da demokrazia modernoak sortzen direnean, Amerikako edo Frantziako iraultzak gertatzen direnean, Rousseau-k “Gizarte Hitzarmena” idazten duenean, azken batean, ordezkartzeko demokraziaren ideia bera sortzen denean, zer zilegitasun du lege batek aldebakartasunez egina denean? Bada, ezin dugunez denok ganbera batean sartu deliberatzeko, ordezkartzeko demokrazia erabiltzen da, baina horixe da denok parte hartu ezin izateari ematen diogun konponbidea, baina demokrazia parte-hartzailea ez da osagarri huts bat. Eta gaur egun, teknologia berriekin, bozkatzeko aukera legoke. Halaber, ordezkartzeko demokrazia eta demokrazia parte-hartzailea kontrajartzeari utzi beharko genioke, dikotomia hori hautsi beharra dago. Nahiz eta “aktiboen diktadura” delakoak beldurra eragiten digun, izan ere, ordezkartzeko demokraziak berak baino arazo handiagoa ekar lezake (parte-hartzea txikia bada), horregatik ez dira biak kontrajarri behar, baizik eta bi mundu horietatik bakoitzak daukan hoberena hartu, Open Kratiokoek irtenbide bat daukagu dikotomia horri amaiera emateko.

Aldaketa proposamenak:

Bere arrazoibidearen azalpena: subiranotasuna herrian datza, bozkatzeko eskubidea duen herria 35 milioi herritarrek osatzen dute, niri dagokidan subiranotasun kuota 1/35 da; eta diputatuak 350 dira, eta beraien subiranotasun kuota hauxe da, 1/350. 350 horiek 35 milioiak ordezkatzeko. Gaurdaino espainiarrek ez dugu bozkatu, baizik eta bozkatuko duena aukeratu dugu. (Bozketa, borondate politiko baten adierazpena).

Kontu honi guztiari buelta ematen diogu, mundu guztiari zabaldu erabaki jakin batzuk, baliteke aurre egin behar izatea lehen aipatu dugun horri, hau da, partaidetza txiki batek dakarren defizitari, baina herritar bakoitzaren

botoak konputatu beharrean denak sartzen baditugu ganberan, diputatu bakoitzak 100.000 espainiar ordezkatzeko lituzkeenez, bada batek bozkatzen duenean, ganbera osoaren bototik 0,000001 kenduko genuke, izan ere, ganberak herritar guztiak ordezkatzeko ditu, bakoitzak dena delakoaren aldeko botoa eman badu ere. Beraz, 100.000 espainiarrek emango balute botoa, 350etik 1 kenduko genuke, eta kasurik muturrekoenera joanda, 35 milioi espainiarrek bozkatuko balute, diputatuaren beraren botoak bera ere herritar den aldetik dagokion balioa baino ez luke izango. Demokrazia zuzenaren mekanismo bat dugu hor, baina kontrapisu gisa ere hor dago, partaidetza handirik ez badago ordezkartza ganberari eskuordetzen zaiolako.

Abiapuntu honekin, mekanismo batzuk proposatuko ditu, batzuk demokrazia zuzenekoak, eta beste batzuk ordezkartzako demokraziakoak, Open Kratio bere kolektiboak egindakoak.

Partaidetzazko kontsulta mekanismoak honela sailkatzen dituzte:

- Kontsultak. Bi bide:

1. Administrazioak abian jarriko dituzte esanguratsutzat jotzen diren gaietan beraiek proposatutako neurrien gainean herritarrei kontsulta egiteko mekanismoak (hemen administrazioak galdetzen du)
2. Baina alderantziz ere egin liteke, hau da, herritarrek modu zuzenean agintaritza publikoei egindako galderak. Hori existitzen da Brasilen, bide hori esploratu liteke, baita herritarretik herritarrerakoa ere. Askoz ere garrantzitsuagoa da deliberazioa, gizartea arrakalatu ez dadin. Hasiera batean errazagoak diren mekanismoekin hasi, eta gero gorantz jo. Denborak ematea ere garrantzitsua da.
3. Gardentasunaren arloa oso garrantzitsua da. Esate baterako, txosten hauek kanpora ateratzea. Hau da, aurrekontuak argitaratzea, bistaratzea eta ebaluatzea.
4. Jarduera parlamentarioa monitorizatzea.
5. Herritarren partaidetzaren erregistroa, irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

Mekanismo ez lotesleak:

Adierazpen instituzionalak, herritarrek mekanismoak izango dituztela instituzio horri interpelazioa egiteko eta halaber ahalbidetzea beste instituzio, entitate edo organismo batzuei eskariak egitea.

Mekanismo lotesleak: herritarrek legeak egin nahi dituzten proposamenetarako. Hiru oin:

- Legegintzako herri eskaria: mekanismo honek bide bat ezartzen du herritarrek, banaka edo modu kolektiboan, eskatzeko gai jakin batean gainean lege egitea. Soil-soilik markatuz lortu beharreko helburuak. Sinadura bilketa beharrezkoa izango litzateke. Arazo bat dago, eta herritarrak esaten dio egin dezala.
- Legegintzako herri ekimena: herritarrek beren kasa osatutako lege proposamenak aurkezten dituzte. Sinadura bilketa beharrezkoa.
- Legegintzako herri ekintza: ekintza zuzeneko erreminta bakarra da. Wikilegislation delakoaren printzipioei atxikia da. Web erreminta bat, testua lankidetzan idazteko, sinadura digitalaren konputazioa, zuzenketetarako erregistratzea eskatzen dute, gaia konplexu samarra bada, esaterako errepide bat, herritarrei irekia bada, ingeniariak, arkitektoek parte hartu ahalko dute, gero ezusteko desatsegini ez izateko.

Kontsulta lotesleak herritarren eskutik nahiz botere publikoen eskutik abiaraziak izan daitezke. Partaidetzazko mekanismo berriak irekiz, esaterako, demokrazia 4.0, koordezkartza, boto telematiko iraunkorra.

Kopartaidetzako tresnen artean, adibiderik argiena aurrekontu parte-hartzaileak dira. Herritarrek erabakitzen dute zein den funts publiko jakin batzuk esleitzeko lehentasuna. Aurrekontu guztiak irekiak izatea da helburua, baina

gutxika-gutxika hasi behar da. Halaber, kontratazio publikoan ekarpenak egitea eta ebaluazioa, herritarrek baldintza agirietan parte hartzea ahalbidetzeko.

Agenda ere irekiko luke, herritarrek ikusteko aukera ez ezik, bertan parte hartu ere egin dezan. Proposatu ahal izatea kideren bat bertaratzea herritarrek garrantzitsutzat jotzen duten zerbaitetara.

Kanpaina digitalak, kanpaina informatiboak, bai botere publikoek eta bai herritarrek beraiek eskatuta eta antolatuta.

Partaidetza prozesuetarako zaintza mekanismoak, begiratzea zer egiten duten beste leku batzuetan eta funtzionatzen ote duen.

Aldundia behar bezain txikia da aipatutako guztiak aktibatu ahal izateko, eta aldi berean, behar bezain handia horrek guztiak herritarrengan inpaktua izan dezan (hobetzeko inpaktua).

Eboluzioa aprobetxatuz, berak gisa honetako mekanismoak sartuko lituzke.

Interesgarritzat jotzen du, halaber, auditoriak egitea, herritar taldeak. Bere proposamen osoa ekintza publikoko metodologia orokor batean oinarritzen da. Politika publikoen zikloa bost puntutan laburbiltzen da: arazoa edo beharrianak identifikatzea, alternatibak planteatzea, alternatiba horiek aukeratzea, gauzatzea eta aplikatzea, egindakoa ebaluatzea eta ikustea ea konpondu den, bestela, zikloa hasiko genuke.

Herritar epaimahaiak/foroak ere gomendatzen ditu. Abian jarritako obra publikoen funtzionamendu egokiaz arduratzeko, ustelkeriarik egon ez dadin.

Herritar eserlekua ere proposatzen du, nahiz eta batzar nagusien ganberan jada ezetsia izan den.

Egun berean hitz egin zuen **Juanjo Álvarezek**, eta egungo arauaren analisi tekniko baten zirriborroa egiten saiatu zen, hiru aukera hauen gainean oinarrituta edo horien gaineko ikuspegitik: araua dagoen horretantxe mantentzea, aldatzea edo ordezkatzeta.

Horrez gain, balorazio bat ere egin zuen, herritar partaidetzaren dimentsioaren testuinguruan jarria, izan ere, beraren iritziz, arauaren izenburuari berari buruz ere egin liteke zuzenketarik. Neogobernantzaren eta gobernu irekiaren munduan aitzindaria izan zen, baina sei urte askotxo dira; 2010ean bi arau baino ez zeuden Estatuan, eta gaur egun partaidetzari buruzko askoz ere arau gehiago daude. Aldatu liteke, baina erlatibizatzeke puntu batekin.

Crozierrek zera esan zuen, “gizarte bat ez da dekretuz aldatuko”, eta gure foru zuzenbide zaharrak erakutsi zigun arauak zenbat eta laburrago, onago eta gutxiago, hobeto. Zenbait alderdi zerrendatu ditu:

1. Partaidetza sustatzeko, arau bat izatea baino garrantzitsuago gerta liteke borondate politikoa eta kultura politikoa egotea.
2. Juanek ez bezala, berak uste du foru araua gogoz arau (legea) dela eta gorputzez erregelamendu. Araua, Álvarez jaunaren iritziz, hein handiegian dago banatuta, hein handiegian da erregelamendu zale. Gomendatu du legegaldi batetik bestera ez dadila ezabatu lehendik partaidetzan landutakoa.
3. Berak uste du arauak beharrezkoa duela udalerrietarako egokitzapena. Eta aukera aproposa litzateke araua udalerrietara egokitzea bultzatzeko.
4. Álvarezek, analisiari ekin aurretik, testuinguruan jarri nahi du gai bat, aipatu digu Juanekin bat datorrela hark esandakoetan, arau batek ez duela murriztuko partaidetzaren harira dagoen demagogia. Bizi garen gizarte honetan, diktadurapeko 40 urteren eta demokraziapeko 40 urteren buruan, partaidetza hein handiagoan zerbitzu gisa sustatu izan da. Luis Aragonés soziologoak zioen gure gizartean “kexa asko eta

partaidetza eskas” dagoela, batzuek asko parte hartzen dutela, eta besteek, ordea, oso gutxi. Partaidetza herritarrari zuzendu beharrekoa da. Instituzionaletik norbanakora sustatu izan da partaidetza, eta instituzionaletik kolektiborakoa landu beharko litzateke. Elkartegintza Juanjok zaintzea gomendatzen digun faktore bat da eta kopartaidetza baten emaitza ekar diezaguke.

5. Oso positiboa litzateke, halaber, partaidetza sustatzeko publikoaren eta pribatuaren arteko uztardurarekin. Partaidetza inplikaziotik etorri behar da. Partaidetzarik izatekotan, informazioa beharrezkoa da. Horren adibide oso argia da Gipuzkoa Aurrera, hain zuzen, ideia ona izan baitzen baina porrot egin zuen, elite bat zegoelako herritar multzoaren ordezkartzan, eta hein horretan, ez zelako izan partaidetzarako tresna bat.
 - a. Partaidetza hautetsontzietara mugatu ohi da, eta lau urtean behin bozkatzean maximalismo baten arriskua sortzen zaigu, zeinak herritarrari energia piloa alferrik galarazten dion.
 - b. Era berean, partaidetzan marketin asko dagoela uste du, partaidetzarekin berarekin baino gehiago kezkatzen zara egitera zoazena esatearekin. Arlo politikoak partaidetzaren gainean duen tirania faktore gisa izendatu du berak.
6. Partaidetza kultura berriei bultzada eman behar zaie, beste arau batzuetan, hala nola Valentziakoan edo Aragoikoan, enpresaren arloan ere partaidetza sustatzen dute. Berak proposatu du batzarkideen ahaleginak lotzea gobernuak exekututzea nahi dugun horretara. Eta integrazio instituzionaleko, politikagintza berriko sistema bat onartzea, herritarren partaidetzan eta konpromiso zibikoan oinarrituta. Eta hori, printzipio multzo gisa sartuko luke Juanjok arauan, azkenean aldatzen edo ordezkatzaren bada. Eta unean uneko gobernuari jarraibidea markatu.
7. Foru arauan bada zati bat partaidetza nazioarteko dimentsioan aztertzen duena eta hori nabarmendu nahi du. Bertan informazio eskubidea ikusten da. Gogoan izan beharreko faktore bat.

Aintzat hartu beharrekoari buruz eskema batzuk prestatu ditu:

- Xedapen orokorrak, hiru esparrutan:
 1. Aplikazio esparru objektiboa. Herritarren partaidetzaz ari garenean zertaz ari garen.
 2. Aplikazio esparru subjektiboa: lurraldetik kanpoko eta barneko gipuzkoarrak, kanpokoek ere parte hartzeko eskubidea izango dute.
 3. Partaidetzaren asmo eta helburuak, gobernuari helarazten diogun arau-agindua, bere politika markatu ez, baina herritarren partaidetzarekin lotu nahi diren asmo eta helburuak bai, ordea.
- Herritarren partaidetzarako antolaketa administratiboaren eta programazioari buruzko bigarren kapitulu bat eratuko luke.
- Lehen helburutzat markatuko luke herritarren partaidatzarako eta kontu-ematerako urteko programa bat ezartzea.
- Herritarren partaidetzarako atari bat irekitzea Juanek aipatu dizkigun gai guztiak islatzeko.
- Herritarren partaidetzari buruzko fitxategi bat, Aragoiko eta Valentziako arauetan jasota dagoen bezalaxe. Erregistro bat, parte hartu nahi dutenei buruz, eta horiek informazioa jasotzeko. Alerten eredura.
- Jaso beharko litzateke zer eskubideri buruz ari garen herritarren partaidetzari buruz ari garenean. Esate baterako, parte hartzeko eskubidea, informazio eskubidea, proposatzeko eskubidea.
- Juanekin bat etorrira, herritarren partaidetzarako xedapenei eta bideei buruz kapitulu bat eratuko luke tresna desberdinekin: herritarren partaidetzaren tresnak *stricto sensu*, kontsultak, deliberazioa, inkestak, iritzi azterketak, hori hobeto daki dimisio pribatuak.
- Kapitulu bat, Partaidetzako zuzendariaren zoriaren mende egongo ez dena, eta bertan sartuko litzuke sustapen neurriak. Partaidetzaren arloko jardunbide egokien eta formazioaren analisiarekin.

- Horrez gain, herritarren partaidetzaren definizio bat proposatu digu: “herritarrek banaka edo modu kolektiboen politika publikoetan esku hartzea eta inplikatzeko, horien eta herri administrazioaren arteko entzute aktiboa eta elkarrikeria ahalbidetzen duten prozesu eta mekanismoen bitartez” eta hortxe bilduko luke uler dezakegun guztia. Juanek jada esan dituen gauzetako asko, esaterako, legegintzako herritar eskariak edo legegintzako herritar ekintzak, edo hein handiagoan lehen aipatu dudaren ildotik, partaidetza korporatiboarekin, azken batean, partaidetza gune eta esparru gehiagotara zabaltzea. Honi guztiari bultzada ematea arlo publikotik.
- Berak testua deskargatuko luke eta proposamen hauek marka daitezela. Testua zaharkitua dago.

Batzarkide taldeen galderei erantzunez, Juanjok proposatu du ezin dela arauan *tabula rasa* egin, berak aldatu egingo luke, modulatu. Berak indar berezia egingo luke antolaketa administratiboa gobernu aldaketetatik “independente” izatean eta transbertsala Aldundiko sail desberdinekin eta partaidetza prozesuei buruzko arau orokorrekin. Arauak pedagogia politiko eta sozialetik zerbait izan behar luke. Xedapen gehigarriari dagokionez, Juanjok aldatzea eta garatzea proposatu du.

Elkartegintzari dagokionez, banakoen partaidetzaren arazo bera planteatu du. Ez litzateke mespretxatu behar dimisio hori, egia da, batzuek beren buruari esleitu diote ordezkagarritasuna. Horregatik jotzen du garrantzitsutzat erakunde interesdunen fitxategiak eratzea. Aldunditik hierarkizatu gabe. Esate baterako, ildo horretakoak dira erretiratuei, adinekoei eta abar egindako deiak autobusen arrapalei edo Euskotreneko komunei buruz, diputatuari eta bere teknikariei kontsulta egitea baino askoz ere praktikagoa da.

Printzipio multzo bat jarriko luke, legea aplikatzeko nolabait gidoi gisa baliagarriak izango litezkeenak: gardentasunaren printzipioa, gobernu ona, ebaluazioa, informazioa, datuen irekiera, herritarrek informazio berrerabiltzea. Alor batzuetan partaidetza lokaztu egiten da, adibidez, ingurumenaren arloan. Horrek frogatzen du gobernu batek ezin duela nahi izan erabaki bati zilegitasuna eman partaidetza prozesu bakar baten bidez, gizarte zibiko eta informatu bat sortu behar da, ez soilik kanpaina batzuk batuz, inolako arauk ez ditu eragotziko gizartearen aldaketak.

- 2016ko apirilaren 18an agerraldia egin zuen **Francisco Juradok**, jurista eta Andaluziako Parlamentuko lehendakariordetzako idazkaria.

Berak uste du arauaren edukiari egin dakioken kritika ondo jasota dagoela IGOPen txostenean. Beste behin ere, txostengile batek uste du araua oso markatuta edo giltzapetuta dagoela ordezkagarritasunaren paradigman, eta partaidetzazko mekanismoak ordezkarien oniritziaren mende geratzen direla.

Beraren iritziz, jendeari parte hartzen uzten diotenean badirudi funtzio hori eskuordetu egiten dela. Denbora asko daramagunez gisa horretan funtzionatzen, badirudi partaidetza mugatzen dela lau urtean behin bozkatzera, eta lau urte horiek igaro bitartean une gutxitan sortzen dira parte hartzeko aukerak. Arauak politikaren barruan oso ondo betetzen du harmena.

Araudi osoa ordezkartzako demokraziarekin blaituta dago, halere, Konstituzio espainolaren 21.1 artikulua dio gizaki orok duela bizitza politikoan parte hartzeko eskubidea modu zuzenean edo bere ordezkarien bitartez, eta halaxe dago jasota ia-ia konstituzio eta autonomia estatutu guztietan. Horietan agertzen da hori gauzatzen dela legegintzako herri ekimenaren bidez (gero pasatuko ditu iragazkiak) eta erreferendumaren bidez (beharrezkoa du goragoko baimena).

Jarraian, txostengilea azaltzen hasi da tresna juridiko horietako zein aldaketak ahalbidetuko duten herritarren partaidetza zuzenagoa. Legegintzako herri ekimenari dagokionez. Ordezkartza ez da eskubide bat, bete beharrezkoa da. Nahitaezko ordezkartza da, legala. Sufragioa eskubidea da, ordea. Hortik abiatuta, zuzenean legebiltzarrean bozkatu daiteke, ordezkartzaren moduak konbinatuz. Ez da ulertzekoa gaur egun mandatariek lau urtetan zehar mandatugilearen gaineko boterea edukitzea, gaur egun gertatzen den bezala.

Hau da, gaurdaino egondako irizpideak jada ez dira sostengatzen. Lehen ezinezkoa zen hautesle errolda osoak (Gipuzkoan 71.500) aldi berean parte hartzea. Gaur egun, teknologia berriekin, hori posible da.

Jurado jaunaren proposamenaren helburua da bide telematikotik nahi denean bozkatu ahal izatea, hautetsien ordezkartza konbinatuz eta une jakin batean bozketa espezifiko batean bozketa zuzena gauzatu ahal izatea hori ahalbidetuko luketen algoritmo informatikoekin. Horrela, denbora errealeko demokrazia gertatuko litzateke, ez lau urtean behingoa.

Gaineratu du estatu mailako legediak ez duela hori ahalbidetzen alde horretatik oso eskasa delako, baina lurralde ganberetako araudiak alda daitezkeela lege organiko konstituzionala urratu gabe. Gure kasuan, bosgarren idazpuruko IV. kapitulua arautu daiteke, bozketena, 71. artikuluari bis sail bat gehituz, haren bidez ahalbidetzeko irekitzea pertsonen partaidetza telematikoa NAN digital edo elektronikoarekin. Horrela, denbora errealeko kontu-ematea gauzatuko litzateke.

Legegintzako herri ekintzari dagokionez, horren osagarritzat egokitu daiteke atari bat, plataforma bat, bertan eztabaida foro bat jarri ahal izateko. Bozketa sistema baten bidez gaiak antolatuko lirateke eta bigarren fase batera pasatuko litzateke interesik handiena pizten duten gaiekin lege testua eraikiz joateko, Wiki ildoko lankidetzaren oinarri eta metodologia batetik abiatuta. Gero, legebiltzarrean berretsia izango litzateke bozketa bidez. Hautetsien legegintza zeregin eskusiboarentzat mekanismo osagarri bat litzateke.

Ondorio gisa, legegintzako ekintza aldatu behar da araua hobetzeko.

Hirugarren tresnari dagokionez, erreferendumaz hitz egin dugu, eta proposatu duenaren arabera, erreferenduma egiteko eskuduntza faltaren aitzakia konponduko litzateke lurralde ganberaren eskuduntza eskusiboa den araudi aldaketa batekin. Legaltasun eta konstituzionaltasun zorrotzenez ere egin liteke.

Jurado jaunak ondoko ekarpenak egin ditu, taldeek egindako galderei erantzunez:

Boto telematikoa Valentzian 2010etik ari da funtzionatzen diputatuentzat, izan ere, etxetik eman dezakete botoa osoko bilkurara joan ezin dutenean. Oraingoz herritarrek ez dute bozkatzeko.

Plataforma digitalen beste adibide bat eman digu: Ahora Madrid egiten ari dena (urtebete 500.000 proposamenetik gora). Espainia Plazaren diseinua berritzeko gaien %1ek parte hartu du. Aurrenekoa izanda, oso ondo dago. Zenbat eta garrantzitsuagoa izan gaia, orduan eta gehiago parte hartuko dute herritarrek. Ez dute

legedia ukitu loteslea izan dadin, baina zinegotzien aldetik ahozko konpromiso maila bat badago bozketen emaitza onartzeko, aurrera ateratzeko.

Beste esperientzia ausart bat dago Mallorcako herrixka batean.

Arauaren gainean egin duen ekarpenari edo kritikari dagokionez, berriro nabarmendu du bera puntuz puntu ados dagoela IGOPen txostenean bildutakoarekin. Deigarria egiten zaio zenbait partaidetza mekanismotan protokoloa falta izatea. Arau aurrerratu bat da eta mekanismo aski ditu instituzioak jaso ahal izateko zeintzuk diren herritarren nahiak. Harmena badu, baina ez doa harago erabaki-hartzeetan edo kontu-emateetan.

Berriro helduz erreferendumaren gaiari eta hura lurralde araudietan doitzeko balizko moduei, adierazi du normala dela zalantzak izatea funtzionatuko ote duen ala ez. Ziurrenik errekurtsioak egongo lirateke baina zaila litzateke argudioak bilatzea eragozteko bere burua arautzeko ahalmena duen instituzio batek bere ganberan nahi duen bozketa sistema ezartzea; izan ere, bozketa sistemaz hitz egiten da, ez bozkatzen den gaiaz.

Kontua litzateke nola bozkatu nahi dugun ganbera honetan. Ildo horretan, berriro nabarmendu du bide berriak saiatu eta bilatu behar direla, ezarpenerako mailaz mailako metodoak bilatuz.

“Eskubidea gauzatzearekin berarekin, ikasiz goaz. Irakurriz ikasten da irakurtzen. Erabakiak hartuz ikasten da erabakiak hartzen. Parte hartzen ere, parte hartuz ikasten da”.

Gaineratu du araudi aldaketaren aukera hori ez dela inoiz probatu, eta metodo zientifikoan bezala saiakera-akatsa bidetik jo behar dela aurrera egiteko. Gero eta zailagoa izango da eragozteak jendeak parte hartzea eta bere kabuz erabakitzea.

Erreferendumak maiztasunez egitera ausartzen bagara, azkenean lortuko dugu agerian jartzea demokrazia errearen premia. Halako argudioak beste txostengile batzuek ere nabarmendu dituzte, esaterako, Fernando Pindadok.

Horrez gain, oinarritzko eskubideen aurka egiten duten gaiei buruzko bozketak egitearen arriskuaren aipamenari erantzun dio, balizko egoera horren aurreko babesa ematen duten partaidetza prozesuei buruzko corpus bat dagoela esanez.

Eten digitalaren arazoari dagokionez, mekanismo desberdinen bidez erraztu egin behar partaidetza digitala eta horretarako beharrezkoa da politika publikoak abian jartzea.

Hala ere, gaur egun Internet daukagu etxeetan, liburutegietan, gizarte etxeetan, ikastetxeetan. Adierazi duenez, Euskadin etheen %80 baino gehiagok Internetarako sarbidea dute.

Gaineratu du sarbidea nahiko bermatuta dagoela, baina alfabetatze digitalean indar handiagoa egin behar dela, nahiz eta beste aditu batzuek dioten mugikorra erabiltzeko gai bazara ez zarela analfabeto digitala eta gaitasuna duzula partaidetza digitaleko mekanismo oro erabiltzeko.

Gizarteko geruza baztertuenak dira politikan gutxien parte hartzen dutenak.

Etenez arduratu beharra dago, ez soilik mekanismo digitalei dagokienez, baizik eta eguneroko bizitzako gainerako arloetan ere bai. Garrantzitsua da sufragioak erabiltzea pertsonarik baztertuenetaraino iristeko eta berdintasun handiagoa bilatzeko.

Parlamentuan bozketa zuzenaren bidez denbora errealeko partaidetzaren arazoak konpontzeko, Juradok azaldu du denboran iraupena duen bozketa egin daitekeela, denbora parlamentarioek horretarako aukera ematen dutelako. Esate baterako, aldeztu aurretik denbora bat eman daiteke materiala webgune batean eskuragarri egoteko eta kontsultatu ahal izateko. Bozketa jarraitua izango da 10 egunez edo 2 astez.

Franciscok iradoki digu ezarpenerako mailaz mailako metodoak erabiltzea; bozketa zuzenaren sistemaren ezarpen progresiboa egitea hiruzpalau urtez, modu naturalean egiteko.

Aurreneko urtean ohitzen joateko saioak egingo lirateke, lotesle izaerarik gabe.

Bigarren urtean izaera loteslea zabalduko litzateke gai espezifiko batzuei, baina garrantzirik txikieneko gaiak izatearen akatsa egin gabe, orduan jende gutxi parte hartuko lukeelako. Bospasei hito garrantzitsutara zabaltzea.

Hirugarren urtean gai guztietara zabalduz joango litzateke partaidetza erreal bihurtzeko eta legebiltzarreko ohiko mekanismo bihurtzeko.

Ondorioztatu du masak erabakitzen duenari beldur izatek gure ordezkariak erabakitzen dutenari beldur izatera pasatu garela eta gure errealitatek aldenduta bizi den politikariaren iritziaz baino gehiago fidatzen garela gure ondoko bizilagunaren iritziaz.

Egun berean agerraldia egin zuen **María Noyak**, arauaren ebaluazioa egin zuten genero ikuspegitik eta txosten-azterlan batean azaldu zuten, eta horrenbestez, beraiek ez dute ekarpenik egiteko, taldeen zalantzei eta galderei erantzutea ez bada.

Berriro kontatu digu partaidetzari eta berdintasunari buruzko lan bateratu bat egin zela. Bi arloetako teknikariekin lantalde bat eratu zen, baliabide gutxiarekin eta kanpoko aholkulari baten laguntzarekin. Helburutzat zuten lan bateratua egitea, gida bat eginda gauzatu zena. Gida horrek lan pedagogikoa izan nahi zuen udal partaidetza prozesuetan laguntzeko, erreminta bat izan nola eta zein elementu azpimarratu behar zen bereziki partaidetza lantzeko berdintasunaren ikuspegitik. Lan prozesua “faltsuan itxita” amaitu zen, presaka, legealdia amaitzeaz zegoelako, baloraziorik egin gabe eta zer segida emango zitzaion erabaki gabe. Prozesu pilotu bat zen, praktikarekin elikatuz joan beharko litzatekeena.

Egiteko dago segida hori eta gida erabiltzeko dago probatzeko.

Generoaren arloan ezinbestekoa da lan pedagogikoa. Gidak horretarako erreminta bat izan nahi du. Partaidetzan parekidetasuna ez da mugatzen kopuruetan modu orekatuan parte hartzera. Horrez gain baloratu behar zer-nolako isla duen gerora gizonezkoen eta emakumezkoen bizitzan. Partaidetza prozesuetako protokolo baten parte izan daiteke gida.

- Maiatzaren 10ean Itziar Izagirrek eta Antxon Gallegok aztergai dugun arauari buruz beraiek ateratako ondorioak azaldu zituzten. Joseba Muxika ere bertan zela.

Itziar Izagirrek beste behin ere sakondu du orain arte entzun ditugun txostengileek jada proposatutako gaietan, alde batetik planteatu du arauan aipatzen diren instituzioen antolamendu erreforma. Generoari dagokionez, uste du arauak arauaren asmoen adierazpen huts gisa uzten duela, eta kontziliazioa eta berdintasuna erraztera bideratuagoa egon beharko litzatekeela. Praktikotasun ildo horretan bertan, galdetu du ea arauaren aplikazioak berarekin ekarri

duen politika publikoen hobekuntza.

Politikak eta programak kalean bertan lantzea proposatzen du, horrek emaitza hobeak emango dituelako, informaziorako sarbide sistemak hobetzea eta gardentasun aktibo baten aldeko apustua egitea, hau da, kontua ez da ilusio bat sortzea, baizik eta herritarrek ezagutza eta kontrola izan behar dute. Ordezkariek eta instituzioek kontu eman behar dute. Herritarrek iritzi kritiko librea izan behar dute eta herritarrak teknikari eta politikariekinekin konektatzea beharrezkoa da.

Gobernuek aurrera atera beharko lituzketen politikei dagokionez, beraren ustez beharrezkoa da oso definizio argia eta adostua duen gobernu politika bat. Integrala izan behar du, bestela sinesgarritasuna galtzen du. Garrantzitsua da plan zuzentzaile bat edo gisakoren bat izatea gaia antolatzeko. Herritarrentzat ez da erraza webgunean aurkitzea zenbait kontseilu eta erakunde dauden, eta gainera, herritarrak aukera izan behar du sartzeko eta parte hartzeko. Lau urteko plan laburrak sartu behar dira, eta beste batzuk epe ertain eta luzekoak. Gero urteko programetan zehaztuko dira.

Antxon Gallegok ere adierazi du beste behin ere Foru Aldundiaren araudiak modu arriskutsuan mesedetzen duela entitateetako kide izatea, protagonismo eta partaidetzarako kanal berezi batzuk ematean horietako batzuen korporatibismoa handitu lezaketanak erabakitzeko prozesu politikoetan parte hartzeko ordezkari eta zilegitasun handiagoa dutela iritzita. “Izaera errotik antidemokratikoa izango luke pertsona talde batek, dena delako neurrian ugariagoa eta ordezkagarriagoa izanik ere, sufragio unibertsala ordezkatzek edo hauteskundeetan askatasunez hautatuak izan diren pertsonak ordezkatzek”.

Ordezkaritzako demokraziaren eta demokrazia parte-hartzailearen arteko dikotomiari dagokionez, bere iritziz ez dago kanalen lehentasunik. Ordezkarien hautaketa ez da jarduketa publiko bati buruzko eztabaida edo herri kontsulta batean botoa ematea baino garrantzitsuagoa. Sistema politiko beraren dimentsio desberdinak baino ez dira, ez dago besteak baino handiagoa edo hobe den batik. Denak dira beharrezkoak demokraziaren funtzionamendurako.

Partaidetza politikaren ezarpenari dagokionez, esan du legealdi hasieran partaidetza programak planteatu zuen helburuetako bat izan zela “praktikaren bidez gure partaidetza eredu propioa garatzea, eta egungo araudia eredu horretara egokitzea”. [...] Adierazi du ikusteko aukera izango dugun dokumentuetan inon ez dela existitzen “eredu propio” hori, eta era berean, foru araua ez dela aldatu, programaren beste helburuetako bat hori izanda ere.

Jarraitu du esanez erabakirik garrantzitsuenetako bat ez dela modu parte-hartzailean hartu eta partaidetzaren planteamendu politikoa oso polita dela, baina oso teorikoa. Erremintak falta dira, kasuistika eta kultura politikoa, bai administrazioen barruan eta bai kanpoan, segurtasunez zabaldu ahal izateko.

Azken batean, honako ondorioetara iritsi da bera:

- Alde batetik, mantentzeari, indargabetzeari edo aldatzeari buruzko galderari dagokionez, berak uste du gaurkotzea beharrezkoa dela, araua zaharrituta dagoelako.
- Bigarrenik, gobernu irekiaren kontzeptua planteatu du, aukeren agerleku baterako paradigma gisa. Gainera azaleratzen ari diren beste kontzeptu batzuk ere modu egokian integratu behar dira, esaterako, kontu-ematea,

open data, gardentasuna, publizitate aktiboa eta abar.

- Beste alde batetik, gobernu irekiaren kontzeptua kontu-ematearekin lotzea proposatu du, informazio publikorako eskubidea berariaz estekatuta hain zuzen berari dagokion oinarri izaerarekin tokian tokiko botere publikoen gainerako kontrol demokratikorako eta instituzio horietako arduradun publikoen kontu-ematerako.
- Beharrezkotzat jotzen du partaidetza eredu propio eta transferiezina definitzea, beraren ustez, honako itemetan oinarritua:
 1. Proiektu eta ekimen zehatz eta gizartearen interesekoen arabera lan egitea, hartuko diren erabakien gainean epe labur/ertaineko inpaktu erreala bistaratzea ahalbidetuko dutenak.
 2. Lankidetza prozesu eta gune plural, ireki eta inklusiboetan oinarritzea, izan ere, pluraltasun horretan baino ez dugu aurkituko inoiz adituak ez diren beste ahots horiek inplikatzeko giltza.
 3. Zilegitasunik ez ematea partaidetza gune asanbleario, itxi eta/edo pluraltasun zalantzazkoa dutenei, gizarte honetako oso sektore espezifiko eta zehatz batzuen diskurtsoak eta jarrerak gainordezkatzten dutenei, herritarren gainerakoei ez ikusiarena eginda.
 4. Kopuru aldetik ugaria eta ikuspegi sozialetik anitza izango den partaidetza erraztea, lankidetza kanal eta gune anitzak, antolatutak, planifikatuak eta ondo egituratueta oinarritua (kontseilu aholku-emaileak, foroak, kale dinamikak, tailerrak eta talde dinamikak, bilkura irekiak, solasaldi informatiboak, kontsultak, inkestak, e-partaidetzarako mekanismoak eta abar).
 5. Eredu errealista bat izatea eta gure lurraldearen idiosinkrasiara egokitua.
 6. Irizpide orokor komunak ezartzea herritarren partaidetzan azaleratzen ari diren guneak, mekanismoak eta ekimenak sortzeko.
 7. Egokiera eta interes irizpide gutxienekoak ezartzea, horien arabera argitzeko ea beharrezkoa den partaidetza prozesu bat integratzea plan, programa eta/edo proiektu zehatz baten diseinuan eta/edo ezarpenean (legearen edo araudiaren arabera hori betebeharrak bat ez den kasuetarako).
 8. Modu hoberean eta efektiboenean eta aldi berekotasunez integratzea aurrez aurreko partaidetzako guneak eta teknologia berriak (partaidetzarako atariak, app-ak eta abar).
 9. Sare sozialen erabilera gaineratzeko protokoloak betetzen direla ziurtatzea eta sare sozialetan adierazpen askatasuna kudeatzeko instituziotik bertatik ezarritako eredu bat gaineratzea.
 10. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen partaidetza prozesu desberdinak ebaluatzeko kalitate demokratikoaren irizpideen proposamen bat formulatzea.
- Protokolo eta eskuliburu espezifikoetan oinarrituta lan egitea.
- Informazioa ulertzea errazteko neurri efektiboak integratzea, irakurketa errazteko irizpideen, bideoen, grafikoaren, argazkien eta orrien edo euskarri dokumentalen konposiziorako beste zeinahi bitartekoren erabilera sustatuz informazioa ulertuko dela errazteko, eta konplexutasun nabarmeneko gai edo datuetan lehenetsitako publizitate bitartekoa errepresentazio grafikoak izango direla inposatuz.
- Foru aurrekontuen prestaketan herritarren partaidetza gaineratzea, prozesu pedagogiko, ikaskuntzako, mailaz mailako, iraunkor eta erantzunkidetzat hartuta.
- Herritar eskarien figura arautzea.
- Erantzukizun partekatutak sustatzea (erantzunkidetasuna). Instituzioak/kolektiboak/herritarrak: ordezkagarritasuna, gardentasuna, kontu-ematea, (kolektibo sozialak, plataformak eta abar): ordezkagarriak versus ordezkariak.
- Euskal eredu instituzional bat eratzen lagunduko duen foru arau batez hornitzea, konplexutasunean, dibertsitatean, interdependentzian, erantzukizunean eta berrikuntzan ainguratuta, hiru nibel edo planotan

proiektatua: tokiko erakundeen maila, erkidegoaren maila, foru maila.

- 2016ko maiatzaren 24an batzorde txostengilean parte hartu zuten Alberto López Basagurenek, Ion Collarrek eta Maider Martiarenak.

Alberto López baieztapen batekin abiatu da: ezin dela balorazio bat egin, aplikatua izan ez den arau baten balorazioa delako. Azaldu digu lehenik eta behin arauaren sorrera mugatu zuten gaiak zeintzuk izan ziren. Alde batetik, lurraldea, hau da, lurralde eremua Gipuzkoa izan zen, nahiz eta errealtatean, beraren iritziz, partaidetza prozesu arrakastatsuak udal mailakoak edo hortik beherakoak diren, eta beste alde batetik, asmoa zen araua ez zedila mugatu literatura egitera baizik eta nahi zuten saiatzea bide berritzaile baina praktikan jarriko zirenekin. Halaber jakinarazi digu txostenean zeharka aipatzen dela, eta okerrekoa da, beraren iritziz, seinalatzen denean hiru partaidetza prozedura jarri direla praktikan, eta beraren iritziz, horietako bat baino ez da foru araura bideratzeko modukoa, eta berak daukan beldurra da arauaren akats gisa esleitzea hain zuzen foru arauaren aplikazio ezeko prozesu baten ondorioak. Beraren ikuspegitik, araua ez da aplikatua izan, eta ebaluazio honetan interesgarria litzateke aplikazioa aztertzea, araua bera aztertu beharrean, baina hori ezin zaio arauari berari egotzi, eta unean-unean Aldundiaren buru den horren erantzukizuna da haren erabilera eta hedapena sustatzea ala ez.

